

Jan - edanaren bertsoak

"Jan-edanari buruz, literatura ugaria dago hizkuntza guzietan. Euskaraz ere zer bait badegula, liburu honek erakustiko digu", hala aitortzen du A. Zavalak berriki argitaratua duen obraren hitzurrean. Egia esan, gure literaturarik ezagutzen ez zen guraian ere, gure edanerako grina argi utzi zuen Rabelais bera 1535ean argitaratu zuen *Gargantia* zeritzan liburuan. Bertan lehenengo agertzen den euskaldunaren ahoan jarri bai zuen: "— Laguna, edatera".

Janariz berriz zer esan? J.A. Aboitiz lekeitiarraren Txanton pipirri deritzan kanta aski dugu lekukorik.

Gure gizartea ezagutzeko ez etzik gaur egungo gizartea bera lehenengoaren erroiatik ikusteak ere merezi ditu. Zavalak, bi liburuxkatan bildu ditu jan-edaneri buruzko bertsoak, heuren azalari I. Zuloaga pintorearen atorduzko irudiz aurkeztuz. Liburu hortako bertsoak hiru ezaugarri omen: gaita, jan-edana; egilea, ez-egazuna; eta Bidasoaz hegoaldekoak izatea. Bada bertan jan-edanak kantatzen jarriko duena ez etzik goseak kantari jarri zuenik ere. Baina baita ardozale eta ardoaren aurkako.

Bertso horietan dira L.L. Bonaparte printzeak lehenengo mendean bilduak edo, baita ere, Fr. Michel-en *Le pays basque* liburuan argitaratuak.

Zenbait bertsoak izan zuten eragina, biltzaile desberdinak tokian tokiz hain lurralde zabalean jasotako

izatea dugu adibide. Hortik ikus ditzakegu oraindik zenbat lan dugun egiteko, bai biltzeaz eta bai bilduak behar den ordenamenduz jarzeta, kanta edo bertso bakoitzak bere jabetasuna edo nondikakoa izan dezan.

Baina, biltzaileak izenburua hala eman badiore ere, ez da guztia jan-edan kontua. Argi ikus daitake lehen liburuaran 100. orrialdeetik 112.era bitartean, hiru bertso sailetan, kolore marroindunak ere badela. Txokolata kolorez, gustoz bestelakoak izanik ere. Bilketan eta oharintzan arduratu denari inolazko gomendiorik ematekoan, lehenagoko beste Jesulagin bi haien gisara, bertso marroindunen bilketa bai egitea, Aita Viñuesa-k egin Zuen *Coprogenas*, Aita Colomaren hitzurrez argitaratuko zenaren erara.

103. orrialdean Eibaren bildutakotzat dakarrena oso ezaguna zitzagun gure haurtzaruan; baina tartean bazuen euskarixto edo errepika jakin bat ere, era honiara:

**Kaka zuretako ta
kaka neretako;
haxia da gaurza ederra
mundu guztian dako.**

Egia esan, jan-edanak berez dakar ondoreko marroitusuna; eta hori omen da osasuna.

Bilduma horietan, inoiz, aintzinatez gainera tokian tokiko kaladakuntzaz ageritzen ditu, "Mahatsaren zaiñetik dator" ditrelakoak bezala.

Gainera, Azkue ta A. Donostiaren bilketetakoak baino lehenagoko lekukotasunak ere ematen ditu. Adibidez, Xabier Munibek 1764an aurkeztu zuen *El borracho burlado* delakoan ageritzen diren pare bat bertso ere bai. Behar bada, biltzaileak ongi dion bezala, X. Munibe berak herrikantetaik hartuak izan zitezkeen.

Ahatea eta katuaren bertso zelebreak irakurtzen Eibarko Dorrepeko asto janarenak zetozen nere burura (Karmel-en argitaratu ziren 1975eko 4. zenb.), Jatunak jataile direnean, zer ez jan?

Edarien alde edo zein kontra, badira liburutan horietarikoak ere, eta ez guiti. Behar bada edaria da gure herriaren izurriterik handiena, eta honen kontra Eusko Jaurlaritzak hartu dituen erabakiak ez daitzelara ondoregabe geldatu, zeren herri bantentzat ez baita holako zigorrik.

Oso polita da bigarren tomoko 47. orrialdean datorren "Ardoatxo baltza, zer dakak hik?"; baina beste kanta bat zen guretat 52. orrialdean Elgoibarren jasotakotzat datorrena.

Bigarren honek, hor bertan ikusten den bezala, aldaketa asko ditu. Bada hor aipatzen ez denik ere. Ikus Manuel Lekuonak Elgetan jaso zuen hura "Cantares populares" haietan (*Anuario de Eusko-Folklore*, X 1930, 49 eta 87. orrialdeetan). Guk Eibarran ikasia ordea, era honiara zen: **Bart arrotsian beranduan nekez etxera joan;**

**bixamonian sutondoan
pantarreria bagunduan.
Duan, duan, duan,
pantarreria bagunduan, Ja-jai!
Duan, duan, duan,
panparreria bagunduan.**

Ohar jakingarri askorekin eta doinu pentagramaz aberats datoz bi liburuak. Gaur egungo bertsolariak ere badute ikabiderik horietatik.

Baina, edariarekin kontuz ibili beharra dugu euskaldunok, maiz aspaldiko bertsoa oroituz:

**Lagun: kalte haundiak
ditu edariak,
ordenaren kontrako
astakeriak;
sudurra luzatu ta
gorritu begiak
errezelo txarrian
tente belarriak,
juntura elbarriak,
beti egarriak;
hoik diru billera
negarriak.**

Juan SAN MARTIN

En la colección Auspoa, Antonio Zavala ha dado a luz, en dos libros, una antología de versos anónimos dedicados al comer y al beber; notoria afición de los vascos, que se remonta a tiempos muy lejanos y que Rabelais reflejó en *Gargantia*.

Les sirve de ilustración de la cubierta, la obra de Ignacio Zuloaga, que algunos la titulan "La

merienda", y que es de donostiara Manuel...

Dicha recopilación cita con abundancia a los vascos y con otros muchos también a los peninsulares. Asimismo, el pentagrama de los versos de Rabelais es un variante de los que se encuentran en muchos casos, ya que se recopilaron en el libro de L.L. Bonaparte...

Y, no dudamos que las obras de A. Zavalak, *Jan-edanaren bertsoak* y *Le pays basque*, han sido un material a tener en cuenta, como para la poesía popular.

En el primer volumen se recogen tres composiciones amarronadas que forman parte de un formado mucho más extenso, tanto para el verso como para la ilustración, como para la poesía popular.

Hay canciones de la literatura popular que se recogen en un par de páginas figuraban en el libro de X. Munibe, pero que ahora se hacen un posible aporte al acervo del cantautor vasco.

Conviene advertir que las canciones de los vascos, que son muchas, que son los excesos del cantautor...

Musikaste 1982

Hamar urtetan Errenterriko Andra Mari Koralk euskal musikaren alde egin duen lana ez da erraza lantxo honetan bilzeza eta nahi genikien bezala goratzea. Euskal musikuen lanak aztertzeo eta entzuleei emateko asmoetan 1973an sortu zen MUSIKASTE erakundeak, hainbat eginkizun burutu ditu ordutik hona: bat aipatzeokotan, Euskalerriko musikagileen 300 musikalanetik gora azaldu dirala esan beharko genuke. Kontuan hartzen badugu hauetatik 90 gure herrian lehenadibiz entzuteria eman direla, prestakuntza honek eskatzen duen lanaren neurria izugarritzakoa dela aitortu beharko dugu.

Lehenagotik hasia zen Tolosako Lehiaketa (1969) baina nazioarteko eremura zabalik denetik aparte, baditu bere mugak: musika korala bakarrik eskaintzen digula, lehiaketak jarritzen dituen ostopokien gainera, eta hiru eguneko saioa dela. MUSIKASTE, ostera, muga zabalagoak ditu herrikoen artean bahintzat: abesbatzen erakusketak izatek aparte, orga-

nua, orkesta eta beste errezailu batzu ere auzalten dira. Eta aste beteko saioa antolatzen dute errenteriar eraztzaileek.

Errenterriko astea ereduizat hartuz, asko izan dira gero Euskalerriari antolatu diren Musikasteak, baina tokian tokikoak izalok eskaini behar bazaizkire ere, Errenterrikoak du lehen tokia eta bultzegile ohera.

Denen artean, behar bada, Begoñan eratzten den Aste Korala aipatu beharko nuke, urtoren berrogeitamar Bizkaiko koruak bildu dituen.

Baina Errenterriko MUSIKASTE-ren helburu bakarra ez da suak musikuen lana aztertea eta abesbatz, organo, orkesta eta beste errezailu bitartez azaltzea. Hor dago urte askotan eta iraupenez sortutako ERESBIL edo musika artxiboa: Euskalerriko artxiborik inportanteena dugu hau, hamabost mila musikalan, mila musikuen lanak, bilduak baidoate.

edazein ikerketa edo interpretazio egiteko prest daudenak. Biltzeok oraindik asko geratu arren, ez da gutxi hemen daukagun musika aberastasuna; Jose Luis Ansorena eta laguntzaileen ikina ikusi ondoren, laster osotua izango delakoan gaudete. Musikalaren artxibotik aparte, musikari dogokion liburutegi ederra ere bildu dute errenteriarrek eta diskategia ere osatzen ari direlarik, musika ondare ederra daukagula esan dezakegu.

Daukagula, bai, musikazale guztientzat zabalik baita.

Hamargarren MUSIKASTE dugu urtoren maiatzaren 17.etik 22.era ospatuko dena: beti bezala, programa txukun batean ageritzen dira asteo eginkizunak. Gaur arrotsaldean, hase-rako ospakizuna izango da, Murgia-tarrak eta bereziki Joakin Tadeo Murgia (1759-1836) irundarra aipatzeok eguna. Euskal musikuen mendeurren ere gogoratuko dira aste honetan, eta urtoren Elduaingo Tomas, Bonifazio Laskurain, Jose Maria Beobide eta Luis Urteaga musikuen jaiotzak gogoratu behar ditugunez, gero, organoz, abotez eta orkestraz azalduko dira beraien lanak. Astelehenetako orri honetan argitaratu ditut Elduaingo Tomas eta Bonifazio Laskurain musikuen bizitzak eta laster emango ditut Urteaga eta Beobidaren biografikak.

Astean zehar parte hartuko duten koru, organulari, orkesta eta abar aipatzea luzea litzake; egunkariaren bete-beharra delakoan nago, MUSIKASTE daukan garrantziak eskatzen duena baita. Gure musikagileen aldetik eta gure interprete edo azalzaitezen aldetik erakusketak honek daukan balaio aitortu eta goratu behar dugu eta entzule gisa baino ez bada ere, Errenterriaren ikarri ikusi beharko dugu musikazaleok.

Jose Antonio ARANA MARTIJA

Es imposible recordar y ensalzar en estas líneas todo el trabajo que en favor de la música vasca ha realizado en diez años la Coral Andra Mari de Rentería. Baste decir, como muestra de este quehacer, que desde 1973 en que se organizó la primera de estas Semanas Musicales (Musikaste) se han interpretado 300 obras de músicos vascos, de las cuales 90 por lo menos han sido estrenos.

Entre las organizaciones musicales de este tipo tiene más antigüedad el

Certamen de Tolosa, que se inició en 1969; pero no son comparables por ser sus contenidos diferentes. El

Certamen de Tolosa, más amplio en la participación por ser internacional, tiene sin embargo sus limitaciones en cuanto a los intérpretes y duración: en efecto, se limita solamente a masas corales durante tres días. La muestra de Rentería tiene duración de una semana y participación de coros, organistas, orquestas y otros instrumentos musicales. Podemos decir que la Semana

Musical de Rentería ha servido de ejemplo a otras organizaciones simi-

lares posteriores, entre las que cabe destacar la Semana Coral de Begoña que este año, ampliada a dos semanas, ha dado cabida a cincuenta coros vizcaínos. Pero tendremos que decir siempre que a Rentería cabe el honor de ser la primera y la impulsora de estas semanas de música vasca.

Pero la investigación e interpretación de la música vasca no es el único objetivo de la Coral Andra

Mari de Rentería. Ahí está el importante archivo ERESBIL que con esfuerzo y paciencia han venido orga-

nizando. Más partituras de música antigua en un momento como el del País Vasco cualquier investigación importante bibliográfica, una discoteca en una biblioteca, la entrega de José María colaboradores que pronto se someterán a un estudio musical de

La décima Semana Musical de Rentería se celebrará en la Sala Cultural de este pueblo, momento en que se celebrará el programa de actividades

Murguía y era un momento importante en la historia de la música vasca. Tadeo de Murgia y sus restos de los días de la fundación de la discoteca de la biblioteca, la entrega de José María colaboradores que pronto se someterán a un estudio musical de

Luis Urteaga y sus restos de los días de la fundación de la discoteca de la biblioteca, la entrega de José María colaboradores que pronto se someterán a un estudio musical de

El detalle de estas semanas musicales en este espacio no es posible. Sin embargo, es importante decir que en estos días, por iniciativa propia de la organización musical de Rentería, se ha organizado un programa de actividades que en todo el país, en los últimos años, se han organizado en centros de cultura y de ocio, y que han sido amables de la música

CAMPAÑA DEL IMPUESTO SOBRE LA RENTA

Charla-coloquio, hoy, lunes en San Sebastián

Lugar y hora: Salón de Actos de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa. Camino 1, a las 7 de la tarde.

Ponentes: — D. Daniel Bernáldo Montes.

— D. Fernando Sexmilo Ayesa.

Temas: — El Impuesto sobre la Renta y el Concierto Económico. Capacidad normativa autónoma. — Nuevos aspectos reglamentarios del Impuesto sobre la Renta.